

borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duena, indargabetu da, bai eta dekretu honetan ezarritakoaren aurka jotzen duen maila bereko edo txikiagoko beste edozein xedapen ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honetan aurreikusi gabe geratu diren gaietan, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena, aplikatuko da.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gernika-Lumon, 2005eko maiatzaren 31n.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

2827

125/2005 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko dekretua aldatzen duena.

1998ko apirilaren 7ko 66. zenbakiko EHAA aldizkarian argitaratutako adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuak zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan duten erregulazioa ezartzen du.

Dekretu honen bidez, zehaztasun handiagoz biribildu eta egokitu nahi dira adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuek bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak, materialak eta funtzionalak, era horretan erabiltzaileen eskubideen erabilera zuzena bermatzeko. Arreta berezia eskaintzen die egoiliar bakoitzak behar duen espazio fisikoari eta jaso behar duen asistentziaren kalitateari.

Martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 7. artikuluan, titulartasun pribatuko adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuek Administrazio eskudunaren aldetik behar duten baimena erregulatzen da eta, bertan adierazten denez, zerbitzu horiek dekretuaren I. eranskinetik IV.era bitartean ezarritako baldintza materialak eta funtzionalak bete beharko dituzte baimen hori lortzeko. Halaber, baldintza horiek titulartasun publikoko zerbitzuek ere bete beharko dituztela xedatzen da.

Dekretuaren lehen xedapen iragankorraren lehen puntuan, dekretua indarrean sartzen denetik urtebete-

vascos/as con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo, así como cualquier otra disposición de igual o inferior rango que se oponga a lo establecido en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en este Decreto será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Gernika-Lumo, a 31 de mayo de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

2827

DECRETO 125/2005, de 31 de mayo, de modificación del Decreto sobre los servicios sociales residenciales para la tercera edad.

El Decreto 41/1998, de 10 de marzo, sobre los servicios sociales residenciales para la tercera edad, publicado en el BOPV n.º 66, de 7 de abril de 1998, establece la regulación de dichos servicios en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Este Decreto pretende perfilar y adecuar con mayor precisión los requisitos técnicos, materiales y funcionales mínimos a cumplir por los servicios sociales residenciales, con el fin de garantizar el correcto ejercicio de los derechos de las personas usuarias. Pone especial atención en el espacio físico que requiere cada persona residente, así como en la calidad asistencial que ha de recibir.

En el artículo 7 del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, se regula la autorización de los servicios sociales residenciales para la tercera edad de titularidad privada por parte de la Administración competente y se señala que, para su obtención, dichos servicios deberán cumplir los requisitos materiales y funcionales que se establecen en los anexos I a IV del Decreto. Así mismo, se dispone que dichos requisitos deberán también ser cumplidos por los servicios de titularidad pública.

En la Disposición Transitoria Primera del Decreto, punto primero, se establece la previsión del plazo de un

ko epearen aurreikuspena ezartzen da funtzionatzen ari diren adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen titular diren erakundeek Administrazio eskudunari funtzionamendurako aginduzko baimena eskatzeko, betiere alde zuzenak aurretik dagokien sailkapenaren arabera aplikagarri zaizkien baldintza materialak eta funtzionalak bete behar dituzte.

Xedapen iragankor horren bigarren puntuan, gainera, bost urteko gehieneko epea ezartzen da Administrazio eskudunak adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei behin-behineko baimena emateko, erakuntzarrazoi teknikoengatik edo beste arrazoi batzuegatik dekretuan ezarritako baldintza materialak eta funtzionalak betetzen ez dituztenean, betiere ikuskapen-txostenak egoera horrek osasunaren edo segurtasunaren arloko alderdiak eraginpean hartzen ez dituela eta erabilitzaileen bizi-kalitatean kalte larriak eragiten ez duela zehazten badu.

Dekretuaren lehen xedapen iragankorraren bigarren puntu horretan bertan gaineratzen denez, bost urteko epe hori igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuek beren tipologiaren arabera aplikagarri zaizkien baldintza teknikoak bete ez badituzte, edota, beteta izanda ere, aginduzko behin betiko funtzionamendubaimena eskatu ez badute, administrazio eskudunak itxi egingo du zerbitzu horiek ematen dituen zentroa.

Martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 8. artikuluan, titulartasun pribatuko adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen homologazioa arautzen da eta, bertan adierazten denez, zerbitzu horiek dekretuaren V. eranskinean ezartzen diren irizpideak bete behar dituzte horretarako.

Dekretuaren bigarren xedapen iragankorraren lehen puntuan, dekretua indarrean sartzen denetik urtebeteko epea ezartzen da dekretuaren lehen xedapen iragankorraren 1. idatz-zatian aipatzen diren eta EAE-ko edozein herri-administrazioarekin itunduta dauden adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen erakunde titularrek administrazio eskudunari aginduzko homologazioa eskatzeko, betiere dekretuaren V. eranskinean ezarritako irizpideak betetzen badituzte.

Bigarren xedapen iragankorraren bigarren puntuan ezartzen denez, adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen behin-behineko baimenaren indarraldian administrazio eskudunak behin-behinean homologatu ahal izango ditu, betiere aurretik itunduta badaude.

Puntu horretan bertan adierazten denez, bost urteko epe hori igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen erakunde titularrek behin betiko homologaziorako irizpideak bete ez badituzte, edota, beteta izanda ere, homologazioa eskatu ez badute, administrazio eskudunak hautsi egingo du itun-erregimena.

año, a partir de su entrada en vigor, para que las entidades titulares de los servicios sociales residenciales para la tercera edad que se encuentren en funcionamiento soliciten a la Administración competente la preceptiva autorización de funcionamiento, previo cumplimiento de los requisitos materiales y funcionales que les sean de aplicación en atención a su clasificación.

Además, en el punto segundo de la citada Disposición Transitoria, se establece un plazo máximo de cinco años durante el cual la Administración competente podrá autorizar provisionalmente a los servicios sociales residenciales para la tercera edad, si por razones técnicas de construcción o de otra índole, éstos no cumplen alguno de los requisitos materiales y funcionales establecidos en el Decreto, siempre y cuando el informe de la inspección especifique que no afectan a aspectos sanitarios o de seguridad que puedan redundar gravemente en la calidad de vida de las personas usuarias.

El mismo punto segundo de la Disposición Transitoria Primera del Decreto añade que si transcurrido ese plazo de cinco años los servicios sociales residenciales para la tercera edad no hubieran cumplido los requisitos técnicos aplicables en función de su tipología, o habiéndolos cumplido no hubieran solicitado la preceptiva autorización definitiva de funcionamiento, la Administración competente procederá al cierre del centro donde se estuvieran prestando esos servicios.

En el artículo 8 del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, se regula la homologación de los servicios sociales residenciales para la tercera edad de titularidad privada, y se indica que, a tal efecto, deberán cumplir los criterios que se establecen en el anexo V del Decreto.

En la Disposición Transitoria Segunda del Decreto, punto primero, se establece el plazo de un año, desde su entrada en vigor, para que las entidades titulares de servicios sociales residenciales para la tercera edad referidas en el apartado 1 de la Disposición Transitoria Primera del Decreto, caso de que estuvieran concertados con cualquier Administración Pública Vasca, soliciten a la Administración competente la preceptiva homologación, previo cumplimiento de los criterios que se establecen en el anexo V del Decreto.

En el punto segundo de la Disposición Transitoria Segunda se establece que, durante el plazo de vigencia de la autorización provisional de los servicios sociales residenciales, la Administración competente podrá homologarlos provisionalmente, caso de existir concertación previa.

En el mismo punto se indica que si cumplido ese plazo de cinco años las entidades titulares de los servicios sociales residenciales para la tercera edad no hubieran cumplido los criterios para su homologación definitiva o habiéndolos cumplido no la hubieran solicitado, la Administración competente rescindirá el régimen de concertación existente.

Bestalde, 1998ko apirilaren 3an Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua sartu zen indarrean. Dekretu hori, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua bezalaxe, gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea garatzeko egin zen.

Martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua indarrean sartzean, herri-administrazio eskudunek gizarte-zerbitzuak ikuskatzeko zerbitzuak martxan jarri zituzten. Zerbitzu horietako teknikariek martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuak araututako adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzu guztien azterketa zorrotza, dokumentala, materiala eta funtzionala egin dute, araudi horrekin duten egokitzapen-maila zehazteko. Lehen aldiz, ikuskapenaren xede diren zerbitzuen egoera zehatza ezagutu ahal izan da. Ikuskapen-jardueraren ondorioz, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua indarrean sartu zenean funtzionatzen ari ziren adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei dekretuaren II. eranskinean barne hartutako baldintza teknikoren bat zorrotz aplikatuz gero (arkitekturako eta hirigintzako oztopoei buruzko 2 zk. zehaztaperen teknikoak eta/edo gelei buruzko 6 zk. zehaztaperen teknikoak, zehazki) zenbait kasutan betetzea ezinezkoa dela egiaztatu da. Osterantzean, gainerako baldintza teknikoak ongi betetzen dituztela ikusi da eta, zenbaitetan, adierazitako dekretuak exijitutako gutxienekoak gairatu dira. Halaber, beste kasu batzuetan egokitze-obrak bideragarriak direla, eta horien bidez oraingoz betetzen ez diren baldintza tekniko jakin batzuk bete ahal izango direla ikusi da (arestian aipatutakoak, funtsean).

Horrela, beraz, administrazio eskudunen ikuskapen-zerbitzuek martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua indarrean sartu zenetik metatutako praktikak lehen xedapen iragankorraren enuntziatua aldatzea (indarraldia amaitu delako), eta eraginkorrago bat idaztea gomendatzen du. Ildo horretan, lehen xedapen iragankorraren testua, hiru idatz-zatitan bereziki, dekretua indarrean sartu aurretik funtzionatzen ari ziren adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen baimenari buruzkoa da. Arrazoi beragatik, testuan lehen xedapen iragankorraren beharrezko aldaketa sartzeak martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan homologazioa aipatzen duen bigarren xedapen iragankorrari dagokionez antzeko neurri bat hartzea (testu berria bi idatz-zatitan egituratuta dago) eta herri-administrazioekiko itunari buruzko xedapen gehigarri bat gaineratzea eskatu du.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Bartzorde Juridikoarekin bat etorritik eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2005eko maiatzaren 31n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren,

Por otro lado, con fecha 3 de abril de 1998, entró en vigor el Decreto 40/1998, de 10 de marzo, por el que se regula la autorización, registro, homologación e inspección de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dictado, al igual que el Decreto 41/1998, de 10 de marzo, en desarrollo de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales.

Con la entrada en vigor del Decreto 40/1998, de 10 de marzo, las Administraciones Públicas competentes pusieron en marcha los servicios de inspección de servicios sociales. El personal técnico de estos servicios ha venido realizando un análisis exhaustivo, documental, material y funcional de todos los servicios sociales residenciales para la tercera edad regulados por el Decreto 41/1998, de 10 de marzo, con objeto de determinar su grado de adecuación a esa normativa. Por primera vez, se ha tenido un conocimiento exacto de la situación de los servicios objeto de inspección. El resultado de la actividad inspectora es la comprobación de que la aplicación estricta a servicios sociales residenciales en funcionamiento a la entrada en vigor del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, de alguna de las condiciones técnicas incluidas en el anexo II del mismo, concretamente, la especificación técnica n.º 2 (barreras arquitectónicas y urbanísticas) y/o la n.º 6 (habitaciones) se traduce en una imposibilidad de cumplimiento en algunos supuestos en que, por lo demás, se detecta una observancia favorable del resto de los requisitos técnicos, superando, en algunos casos, los mínimos exigidos por el citado Decreto. Así mismo, se objetiva que en otros casos la ejecución de obras de adaptación es viable y que ello permitiría el cumplimiento de ciertos requisitos técnicos que de momento no se satisfacen, básicamente, los anteriormente apuntados.

Así pues, la práctica acumulada por los servicios de inspección de las Administraciones competentes desde la entrada en vigor del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, aconseja la sustitución del enunciado de la Disposición Transitoria Primera, al haberse agotado su periodo de vigencia, por otro que resulte eficaz. Así, la nueva redacción de la Disposición Transitoria Primera, diferenciada en tres apartados, se refiere a la autorización de los servicios sociales residenciales en funcionamiento con anterioridad a que el Decreto en cuestión cobrara vigencia. La introducción en el texto de la necesaria sustitución de la Disposición Transitoria Primera, obliga, así mismo, y por idéntico motivo, a adoptar una medida similar con respecto a la Disposición Transitoria Segunda del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, que trata sobre la homologación y cuya nueva redacción se estructura en dos apartados, así como a añadir una Disposición Adicional, acerca de la concertación con las Administraciones Públicas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, oídos los órganos consultivos interesados, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 31 de mayo de 2005,

XEDATU DUT:

Lebenengo artikulua.— Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren lehen xedapen iragankorra aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

«Lehen Xedapen Iragankorra – Funtzionamendurako baimena:

1.— 1998ko apirilaren 8a baino lehen funtzionatzen ari ziren eta eraikuntza-arrazoi teknikoengatik edo beste arrazoiren batengatik martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskinetik 2 zk. zehaztaperen teknikoak (arkitekturako eta hirigintzako oztopoei buruzkoa) eta 6 zk. zehaztaperen teknikoak (gelei buruzkoa) betetzen ez dituzten adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen kasuan, administrazio eskudunak funtzionamendurako behin betiko baimena eman ahal izango die, betiere ikuskapen-txostenak:

– Adierazitako zehaztaperen teknikoetako bat edo biak ez betetzeak eragiten duen arazoa konpontzeko obrak egitea bideraezina dela, edota, eskuragarri dagoen aurrekontu ekonomikoa kontuan hartuta, egokitzapenak neurritz kanpoko gastua dakarrela ezartzen badu.

– Gainerakoan adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuak dekretuaren gainerako baldintza teknikoak betetzen dituela eta erabiltzaileei arreta egokia eskaintzen diela adierazten badu.

– Baldintzak ez betetzearen arrazoiak erabiltzaileen bizi-kalitaterako kaltegarriak izan daitezkeen osasunaren edo segurtasunaren arloko, eta erabiltzaileen arretaren arloko alderdiei lotuta ez daudela zehazten badu.

2.— Nolanahi ere, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskinetik bigarren eta/edo seigarren zehaztaperen teknikoetara egokitze ezintasuna dokumentu bidez justifikatuko duten txosten teknikoak aurkeztu beharko dizkiote administrazio eskudunari aurreko idatz-zatian ezarritakoari heldu nahi dioten adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuek, dekretu hau indarrean sartu eta 6 hilabeteko epearen barruan.

3.— 1998ko apirilaren 8a baino lehen funtzionatzen ari ziren, eta administrazio eskudunaren ustez adierazitako zehaztaperen teknikoak osorik betetzeko berrikuntza egiteko modukoa eta beharrezkoa delako xedapen iragankor honen lehen idatz-zatian kontuan hartutako kasuaren barruan ez dauden adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuek obrak egiteko proiektua aurkeztu beharko diote administrazio eskudunari, obren egute-

DISPONGO:

Artículo primero.— Se da nueva redacción a la Disposición Transitoria Primera del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, sobre los servicios sociales residenciales para la tercera edad, que quedará redactada de la siguiente manera:

«Disposición Transitoria Primera.— Autorización de funcionamiento:

1.— En el supuesto de servicios sociales residenciales que estuvieran en funcionamiento con anterioridad al 8 de abril de 1998, que por razones técnicas de construcción o de otra índole no cumplan la especificación técnica n.º 2 (barreras arquitectónicas y urbanísticas) y/o la n.º 6 (habitaciones) del anexo II del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, la Administración competente podrá concederles la autorización definitiva de funcionamiento, siempre y cuando el informe de la inspección:

– Determine la inviabilidad de la acometida de obras con objeto de subsanar el problema que provoca el incumplimiento de una de las dos especificaciones técnicas reseñadas o de ambas, o que atendiendo al presupuesto económico disponible, la adaptación constituya un gasto desproporcionado.

– Considere que, por lo demás, el servicio social residencial cumple correctamente el resto de los requisitos técnicos del Decreto y dispensa una atención adecuada a las personas usuarias del mismo.

– Especifique que las causas que generan el incumplimiento no afectan a aspectos sanitarios o de seguridad, ni a aspectos relacionados con la atención de las personas usuarias que pudieran ejercer un efecto perjudicial en su la calidad de vida.

2.— En todo caso, las entidades titulares de los servicios sociales residenciales que quieran acogerse a lo establecido en el apartado anterior, deberán presentar ante la Administración competente, en un plazo de 6 meses desde la entrada en vigor del presente Decreto, informes técnicos en los que se justifique documentalmente sobre la imposibilidad de adecuación a las especificaciones técnicas segunda y/o sexta del anexo II del Decreto 41/1998, de 10 de marzo.

3.— Los servicios sociales residenciales para la tercera edad que estuvieran en funcionamiento con anterioridad al 8 de abril de 1998, y que a juicio de la Administración competente no se encuentran dentro del supuesto contemplado en el apartado primero de esta Disposición Transitoria, por ser factible y necesaria la reforma para el cumplimiento íntegro de las especificaciones técnicas de referencia, deberán presentar ante la Ad-

gia barne hartuta. Proiektu hori 6 hilabeteko epean aurkeztu beharko da, dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera kontatzen hasita. Zerbitzu horien funtzionamendurako behin-behineko baimenaren epea 3 urtekoa izango da, egun beretik aurrera kontatzen hasita.

Behin-behineko baimenaren 3 urteko epea igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen titular diren erakundeek beren tipologia-aren arabera aplikagarri zaizkien baldintza materialak eta funtzionalak bete ez badituzte, edota, beteta izanda ere, aginduzko behin betiko funtzionamendu-baimena eskatu ez badute, administrazio eskudunak itxi egingo du zerbitzu horiek ematen dituen zentroa».

Bigarren artikulua.— Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

«Bigarren Xedapen Iragankorra.— Homologazioa.

1.— Lehen xedapen iragankorraren 1. idatz-zatian barne hartutako adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuek behin betiko homologazioa lortu ahal izango dute, funtzionamendurako behin betiko baimena eskatzen dutenean, administrazio eskudunak ematen dienean, eta martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren V. eranskinean ezarritako homologazio-irizpideak betetzen ditzutenean.

Dekretu hau indarrean sartzen denean zerbitzu horiek EAEko edozein herri-administrazioarekin itunduta dauden kasuan, itun-erregimena-ekin jarraitu ahal izango dute homologazio-eskaera ebatzi arte.

2.— Dekretu honen lehen xedapen iragankorraren hirugarren puntuan aipatutako adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen behin-behineko baimenaren indarraldian, administrazio eskudunak behin-behinean homologatu ahal izango ditu, betiere aurrez itunduta badaude.

Behin-behineko baimenaren 3 urteko epea igaro eta adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuen titular diren erakundeek behin betiko homologaziorako martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren V. eranskinean ezarritako irizpideak bete ez badituzte, edota, beteta izanda ere, homologazioa eskatu ez badute, administrazio eskudunak hautsi egingo du itun-erregimena».

ministración competente un proyecto de realización de obras, con calendario de ejecución de las mismas. Dicho proyecto deberá presentarse en un plazo de 6 meses a partir de la entrada en vigor del presente Decreto. El plazo de autorización provisional de funcionamiento para estos servicios será de 3 años, a contar desde la misma fecha.

Si una vez transcurrido el plazo de 3 años en situación de autorización provisional, las entidades titulares de los servicios sociales residenciales para la tercera edad no hubieran cumplido los requisitos materiales y funcionales que les sean de aplicación en atención a su tipología, o habiéndolos cumplido no hubieran solicitado la preceptiva autorización definitiva de funcionamiento, la Administración competente procederá al cierre del centro donde estos servicios se estuvieran prestando».

Artículo segundo.— Se modifica la Disposición Transitoria Segunda del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, sobre los servicios sociales residenciales para la tercera edad, que adoptará la siguiente redacción:

«Disposición Transitoria Segunda.— Homologación.

1.— Los servicios sociales residenciales para la tercera edad incluidos en el apartado 1 de la Disposición Transitoria Primera podrán conseguir la homologación definitiva, una vez obtengan de la Administración competente la autorización definitiva de funcionamiento, la hubieren solicitado y cumplan los criterios de homologación establecidos en el anexo V del Decreto 41/1998, de 10 de marzo.

En el supuesto de que a la entrada en vigor del presente Decreto estos servicios contaran con una concertación con cualquier Administración Pública Vasca, podrán continuar con el régimen de concertación que tuvieren en tanto se resuelve su solicitud de homologación.

2.— Durante el plazo de vigencia de la autorización provisional de los servicios sociales residenciales al que se refiere el punto tercero de la Disposición Transitoria Primera de este Decreto, la Administración competente podrá homologarlos provisionalmente, siempre y cuando existiera una previa concertación.

Si transcurrido el plazo de 3 años en situación de autorización provisional las entidades titulares de los servicios sociales residenciales para la tercera edad no hubieran cumplido los criterios para su homologación definitiva, establecidos en el anexo V del Decreto 41/1998 de 10 de marzo, o habiéndolos cumplido no la hubieran solicitado, la Administración competente rescindirá el régimen de concertación existente».

XEDAPEN GEHIGARRIA

Oro har, herri-administrazioekiko itunaren ondorioetarako, eta gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 25.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, lehentasuna izango dute martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren I. eranskinetik IV.era bitartean ezarritako baldintzak betetzen dituzten adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuek, behin betiko baimena dekretu honen lehen xedapen iragankorraren 1. idatz-zatian zehaztutako berariazko bidetik lortu duteneko.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Gernika-Lumon, 2005eko maiatzaren 31n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Agintariak eta Langileria**Oposaketak eta Lehiaketak****ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA****2828**

AGINDUA, 2005eko maiatzaren 12koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Sail honetan goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat hutsik dagoenez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (1989ko uztailaren 28ko EHAA), eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren, agindu honen eranskinean zehazten den lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia iragartzea erabaki du Sail honek. Hona hemen deialdiaren

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Con carácter general, a efectos de concertación con las Administraciones Públicas, y en virtud de lo establecido en el artículo 25.4 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales, tendrán prioridad los servicios sociales residenciales que cumplan los requisitos establecidos en los anexos I a IV del Decreto 41/1998, de 10 de marzo, con respecto a los que hayan obtenido la autorización definitiva por el cauce específico que se concreta en el apartado 1 de la Disposición Transitoria Primera del presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Gernika-Lumo, a 31 de mayo de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Autoridades y Personal**Oposiciones y Concursos****DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES****2828**

ORDEN de 12 de mayo de 2005, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Estando vacante un puesto de «Secretario/a de Alto Cargo» de este Departamento y conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2.c de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV del 28 de julio de 1989) y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este Departamento acuerda anunciar la provisión, por el procedimiento de libre designación, del puesto de trabajo que se relaciona en el anexo de la presente Orden, con arreglo a las siguientes